

# Eskubide eta Betebaharren adierazpena

## Eskubideak

### Ibermutuamur-eko osasun-zerbitzuetako gaixo/erabiltzaile guztiek honako eskubideak dituzte:

1. Beren nortasuna, giza duintasuna, borondatearen autonomia eta intimitatea errespetatu daitezke; ezin izango dira baztertuak izan, halaber, beren arraza-jatorri, sexu, erlijio, irizki edo beste edozein ezaugarri edo egoera pertsonal zein sozial dela eta.
2. Tratu gizabidetsu, atsegín, ulerbera eta begirunetsua jasotzeko eskubidea.
3. Kalitatezko osasun-arreta jasotzeko eskubidea; arreta hori langile koalkifikatuek emaniko laguntza tekniko zuzenaren bitartez gauzatu da, eta une oro tratu pertsonalizatua dela medio.
4. Eskura dituen zerbitzu eta prestazioei buruzko informazio osoa jasotzeko eskubidea, bai eta horiek har ditzan edo aitortu dakizkien beharrezkoak diren betekizunei buruzkoa ere. Informazio hori, eta eskubide eta betebeharren adierazpen honetan bildutako gainerako informazioak, Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialeko edozeinetan eskaini ahal izango dira, gaixo/erabiltzaileak edo haren senideek hala eskaturik.
5. Bere prozesuaren inguruko informazio guztia osorik eta modu jarraian jasotzeko eskubidea, barne direlarik diagnostikoa, tratamendu- aukerak eta haien arrisku eta pronostikoak; hori guztia, salbu eta arrazoi terapeutikoez, litekeen kalteren bat eragozteko, informazioa ez ematea gomendatzen duten kasuetan, behar bezala kreditaturik beti ere. Oro har hitzez emango den informazio hori hizkera ulerterrazean helaraziko da. Gaixoa, argi eta garbi, informazio hori jasotzeko gai ez bada, senideei edo legez arduradun diren pertsonari emango zaie.  
Ezintasun-egoeraren batekin (ikusmen, entzumen edo hizketarako gaitasun galerak, eta abar) lotutako premia bereziak dituzten gaixo edo erabiltzaileen kasuan, bitarteko egokiak eskuratzeko eskubidea, beren eskubideak osorik betetzeko aukera berma daitezke.
6. Beren egoera patologikoaren gaineko informazioa jasotzera uko egiteko eskubidea; uko egite hori adierazi egin beharko da, eta idatziz formalizatu. Mugatua izango da, hala ere, beren, hirugarren pertsona batzuen edo kolektibitatearen osasunaren intereseko arrazoiengatik, bai eta bere kasu zehatzaren eskakizun terapeutikoenengatik ere.
7. Beren prozesu guztia idatziz edo beste edozein motatako euskarri tekniko egokiz jasota gera dadin, eta informazio kliniko hori behar bezala zain dadin.
8. Beren prozesu klinikoarekin lotutako informazio guztia konfidentzialtasunez gorde dadin.

9. Sendagile bat jarri dakion, haren izena jakinarazi, eta hura izan dadin talde medikuarekin izango duen solaskide nagusia. Haren faltan, talde horretako beste sendagile batek ardura hori har dezan.
10. Bere historia klinikora sarbidea edukitzeko, berek edo behar bezala kreditaturiko ordezkariaren baten bidez; baita bertako datuen kopia lortzeko eskubidea ere, baldin eta hirugarren pertsonari kalterik sortzen ez bazaie, ezta bere historia klinikoan esku hartu duten profesionalen eskubideei ere.
11. Izaera pertsonaleko datuetara sarbidea izateko, eta haiek aldatu edo ezabatuzko eskubidea; hala denean, legeriak unean-unean ezarritako moduan eta han zehaztutako betekizun eta mugekin.
12. Beren tratamenduaren sendagile arduradunak aurkezten dizkion asistentzia erako aukera desberdinen artean askatasunez aukeratzeko eskubidea; derrigorra izango da berak alde aurretik onespena ematea, salbu eta ondoko kasuetan:
  - a. Osasun publikorako arriskua dagoenean.
  - b. Gaixo/erabiltzailearen beraren osotasun fisiko edo psikikorako arrisku larri berehalakoa egon, eta haren baimena lortzea ezinezkoa denean, kontsulta eginez beti ere, egoerak horretarako bidea ematen duenean, haren senideei edo izatez harekin lotuta dauden pertsonari.Baimena ahozkoa izango da oro har, salbu eta ondoren zehazten diren kasuetan, horietan idatziz eman beharko baita: ebakuntza kirurgikoa, prozedura diagnostiko eta terapeutiko inbaditzaileak eta, orobat, gaixo/erabiltzailearen osasunean eragin negatibo nabarmen eta aurreikusitako modukoa ekar dezaketen arrisku edo oztupoak sortuko dituzten prozedurak aplikatzen diren kasuetan.
13. Beren osasunaren esparruan edozein jardun egiteko emandako baimena edozein momentutan, eta beti ere idatziz, ezeztatuzko.
14. Laneko istripuek edota gaixotasun profesionalak eragindako prozesu asistentzialetan, uko egin ahal izango diote agindutako tratamenduari. Hala gertatzen denean, borondatezko alta bat sinatzea proposatuko zaie, eta prestazio ekonomikoa galdu egingo duela jakinarazi, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko 132. artikuluan adierazten den moduan. Halaber, borondatezko alta ere eska dezakete.
15. Prozesu asistentziala amaitutakoan alta-txosten bat jasotzeko eskubidea.
16. Zerbitzu asistentzial eta administratibo guztiak behar bezala ibil daitezke, eta Ibermutuamur-ek beren prozesu asistentzialak beharrezko dituen bitarteko eta baldintza egokiak eskura diezazkien.
17. Erreklamazio, kexu edo iradokizunak aurkeztu eta, orohar, Ibermutuamur-ekin komunikatzeko bide ezberdinak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea, bai eta aurkeztutakoan erantzuna jasotzeko ere.
18. Laneko istripuek edota gaixotasun profesionalak eragindako prozesu asistentzialetan, bere osasuna leheneratzeko beharrezkotzat jotzen diren medikamentu eta osasun-produktu guztiak izateko eskubidea.
19. Kontuan har daitezke berek honako agiriren batean adierazitakoak: alde aurreko argibideen agiria, bizi testamentua, aurreratutako borondateen agiria edo bere borondatea modu askean adieraztea ezinezko zaionerako jardun medikoetan kontuan hartu beharreko argibideak, alde aurretik, agintzea helburu duen beste edozein dokumentu.



## Betebarrak

### Ibermutuamur-eko osasun-zerbitzuetako gaixo/erabiltzaile guztiek honako betebeharrak dituzte:

1. Beren egoera fisikoari edo beren osasunari buruzko datuak era leialean eta egiazki ematea, baita datuak lortzen laguntzea ere.
2. Ibermutuamur-en zentroetako instalazioak zainzea eta haien txukuntasunari eusten laguntzea.
3. Eskainitako prestazioak egoki erabiltzeko ardura hartzea, nagusiki honakoei dagokienean: zerbitzuen erabilera, laneko baja edo ezintasun orokorreko prozedurak, prestazio terapeutikoez eta gizarte-prestazioak.
4. Asistentzia-zentro bakoitzean eta bakoitzerako ezarrita dauden arau eta argibideak betetzen laguntzea.
5. Begirunez eta errespetuz hartzea hala Ibermutuamur-eko langileak nola beste gaixoak eta haien laguntzaileak.
6. Beren eskubideak bete daitezke exijitza.



**ibermutuamur**

Gizarte Segurantzako lan istripuen eta gaixotasun profesionalen 274. zenbakidun mutua